

## ESKERRONEZ

*Bergara, 1978 - IX - 4*

*Satrustegi, J. M.<sup>a</sup>*

- a) Arabako Diputazioko lehendakari, Ezkerra jaunari,
- b) Gipuzkoako Diputazioaren izenean etorri zaigun Egia jaunari,
- c) Eta Nafarroako Diputazioko Irazoki ordezkariari.

Era berean, eskerrak ematen dizkiogu, Biltzarre honen hasieran gurekin egon náhi izan dutelako, OLF DUTULNIEF Lapurdiko biltzarrekoen lehendakari jauna,

Santamaria, Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntz Kontseilari jauna,

Maturana, Eusko Kontseilu Nagusiko Kultur Kontseilari jauna.

Baita ere, gure artean daudenei eskerrak eman nahi dizkiegu:

Dubosk, Baxenafar eta Zuberoako Biltzarraren lehendakari jaunari,

Jean Haritschelhar, Biltzar horretako diruzain eta gure Euskaltzaindiko Buruordeari.

Azkenekoz, behar beharrezkoa dugu eskerrik beroenak ematea etxeko nagusi bezala ongi etorria eman digun Bergarako Alkate jaun Elkorori.

Eta era berean, Arpal UNEDeko Zuzendari jaunari.

Eskerrik beroenak denoi.

## BARNE-ERREGELAK

1968an Arantzazun egindako Biltzarraren hamargarren urteburuan, Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarra gertatu nahi du. Eleizalderen ehun urteburua betetzen denez, Bergarako Mintegian izango dira Biltzarreko lan saioak, sorrerako euskaltzain izan zenaren omenaldi bezala.

Biltzar honek Oinarrizko Barne erregela hauk izango ditu:

1. Euskal idazle, ikastoletako nahiz beste ikastetxeetako irakasle, federakunde, alfabetatze-euskalduntze mugimenduko, testugile, argitaratzaile, kazetari, euskal kultur lanetan diharduen nornahiri dei egiten zaio, beraz. Horietako edonork parte har lezake Biltzarrean.

2. Biltzarraren gai nagusi eta orokorra, hamar urte hontan euskararen arloan emandako arau eta abiada azter eta sakontzea izango da, eta finkatzeke daudenak aztertzea.

3. Biltzarraren Zuzendaritza hiru batzordek daramate: a) Hizkuntzarekikoak, b) Sozio-estadistikako azterketakoak, eta d) Antolakizunekoak. Hiru hioen gagnetik laugarren bat da oraino: Batzorde Orokorra.

4. Biltzarreko *Hitzaldiak* batzorde bakoitzak gertatuko ditu, hizlaria ere berak aukeratuta izango da, eta Batzorde Orokorri proposatua, beronek birresteko.

5. *Txostenak* edonork ekar ditzake, baina epearen barruan jakineraziz. Epe hau, Ekainaren hondar egunean amaitzen da, gaiaren berri emateko, eta Uztailean laburpena bialtzeko. Hamar minutuko luzeera izango du gehien jota.

6. Hitzaldiak, nahiz hizkuntzarekiko nahiz sozio-estadistikarekiko izango dira, bi barruti hauetako gaia nahasi gabe. Eta berdin egin beharko dute txostenek.

7. Txostenak irakurriko dira denbora baldin bada. Eskubide gehiago dute, noski, Biltzarraren gaiak zuzenago lotzen direnek, baina izan daitezke txostenak inor konturatu ez den gai bati buruz ere. Gai berberaz direnean, Batzordeak batera, molda edo labur ditzake.

8. Elkarrizketak Zuzendaritzak erabakitako garaian izango dira. Eta muga batez.

9. Erabakiak Euskaltzaindiak hartuko ditu, hala behar dela ikusiko balu.

10. Biltzarrera etorri nahi dutenek, aurrez izena eman behar dute eta biltzarkide txartela jaso.

11. Biltzar matrikula 1.000,— pezeta izango da eta lan saio denetara joateko eskubidea berekin du.

12. Oinarrizko Barne Erregelez gainera, beste Erregela Berezi batzu izango dira, aurrez adieraziko direnak: Elkarrizketarakoak, Antolakizun Zerbitzuetarakoak, eta abar.